

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	LABE ETA ZALIEN ESTALDURA	Iraupena	60
		Berariazkoa	
Kodea	UF0169		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	Galdaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Galdaketa eta isurketa	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Galdaketa- eta isurketa-prozesuak	Iraupena	230
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Galdaketa-eragiketak	Iraupena	90
	Isurketa-eragiketak		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0586_3ko LB1 lanbide-burutzapenarekin: EKIPOAK PRESTATZEA ETA GALDAKETA ETA ISURKETA EGITEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Labe eta zalien estaldura-teknikak aplikatzea galdaketa eta isurketarako, kalitatea ziurtatuz eta laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzio-arauak betez.

BI1.1 Labe eta zalien estaldurara-materialak (azidoak, basikoak, neutroak) eta haien aurkezpena (adreiluak, piseak eta abar) deskribatzea.

BI1.2 Labe eta zalien estaldura-prozesuetan erabiltzen diren galandak eta erremintak deskribatzea.

BI1.3 Estaldurak prestatzeko eta eraikitzeko prozedurak deskribatzea. BI1.4 Estaldura erregogorra non jarri behar den identifikatzea, labe eta zalien planoak interpretatuz.

BI1.5 "Fritatze-kurba" interpretatzea (tenperatura, denbora), estaldura-denboraren arabera, sinterizazio egokia bermatzeko.

BI1.6 Estaldura baten bizitzan eragiten duten aldagaiak identifikatzea.

BI1.7 Labe edo zali batean, estaldura egitea, hauek kontuan izanik:

- Estaldura erregogorra non jarri behar den identifikatzea, dokumentu teknikoak interpretatuz.

- Lodiera errefraktarioa neurtzea, eskatutako apreziazioaren araberrako baliabide egokiak erabiliz, prozedura normalizatuei jarraikiz.

- Estalduraren higadura kalkulatzea, eta aldi batez kentzea edo "adabakiak" jartzea erabakitzea.

- Labe edo zalien estaldura egiteko behar diren materialak ordenatzea eta sailkatzea.

- Galandak hautatzea eta erreminta egokiak erabiliz ezartzea, finkatutako espezifikazioak betez.

- Estaldurak ekoizpenean erabili aurretik jarraitu behar duen "fritatze-kurba" (tenperatura, denbora) interpretatzea.

- Labe edo zaliaren estaldura eraikitzeko prozesua segurtasun-kondizioetan gauzatzea.

Edukiak

1. Labe eta zaliak estaltzeko behar den interpretazio teknikoa

- o Informazio grafikoa interpretatzea.
- o Bistak, ebakidurak eta sekzioak.
- o Erregogorra jartzeko guneak.

2. Galdaketa- eta isurketa-prozesuetan erabiltzen diren labe eta zaliak

- o Urtzeko labeak: Deskribapena. Motak. Zati nagusiak. Aplikazioak.
- o Isurketa-zaliak eta lingote-ontziak: Deskribapena. Zati nagusiak. Motak.

3. Labe- eta zali-estaldurak galdaketa- eta isurketa-prozesuetan

- o Labe eta zalien estalduretan erabiltzen diren material erregogor motak (azidoak, oinarritzkoak, neutroak, bereziak). Konposizioa. Aplikazioak. Ezaugarriak. Propietateak. Aurkezpen-formak (zementua, morteroa, adreilua).
- o Labeak eta zaliak estaltzeko erabiltzen diren erremintak.
- o Masa erregogorrek prestatzea.
- o Estaldura baten bizitzan eragiten duten aldagaiak.
- o Erregogorra egiaztatzea: Erregelak eta mailak.
- o Prozedurak eta teknikak.
- o Erabili beharreko dokumentu teknikoak.

4. Segurtasuna eta ingurumena labe eta zalien estalduran: arauak eta arriskuak.

- Prozesuarekin erlazionatutako arriskuak eta hartu beharreko segurtasun-neurriak.
- Norbera babesteko ekipoak.
- Prozesuari aplikatzen zaion ingurumen-babesa.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Galdaketa eta isurketa.